

III.-Segmentazioa:

Gure zerbitzua hurrengo bezero motei ailegatuko zaie. Merkatu Masiboa: Gure zerbitzua ez dago bakarrik zuzenduta publiko zehatz bati. Nahiz eta dronak gazteentzat oso deigarriak izan edozein adinetako jendeak gure zerbitzua kontratatzeko prest egongo da. Gainera gaur egun, jende asko klima aldaketarekin kontzientziatuta dago eta ahal duten beste egiten dute klima aldaketaren alde borroka egiteko. Gure aplikazioa erabiltzen erraza izango da, horrela nahiz eta adin oso altua izan ez dute izango arazorik gure zerbitzua erabiltzeko.



Merkatu Segmentazioa Motak:

Guk plataformaren edo merkatu aldeaniztuna segmentazio merkatu motan sailkatzen dugu gure zerbitzua. Hau da gure enpresa zerbitzu bakarra eskaintzen duelako eta ez ditugulako hainbat produktu saltzen merkatu dibertsifikatu motetan bezala.

Enpresaren arabera publiko zehatz bati dirigitzen da. Janariari erreparatzen badugu ez dago publiko zehatz bateri zuzenduta, edozeinek eskatu ahal duelako. Geroago beste enpresa desberdinak publikoa zabaldu egingo dute, jendea eskatzen duen arabera publiko mota bat izango du. Adibidez norbait kirol arropa nahi badu publiko kirolarira erreparatuko da.